

# ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 12

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

*30 urte*

2008 - Otsailak - 1

## 2008ko URTARRILAREN 31ko MAHAI NEGOZIATZAILEA

Pasa den urtarrilaren 31an izan genuen mahai negoziatzailean **jorratu genituen gaiak** hauexek izan ziren:

- 1. Lan Hitzarmena.** 3 sindikatuok bat egin dugu Partzuergoarekin eramaten ari garen negoziazioan plataforma bateratua eratzean. Gure proposamen berria mahaiari bota genuen, eta Partzuergoaren aldetik nahiz eta ados ez egon guk botatakoarekin, aztertuko dutela esan ziguten.
- 2. LEP deialdia.** Oposaketen deialdiari buruz, ez ziguten ezer berririk esan.

STEE-EILASen aldetik elkarrizketarako prest gaude eta hurrengo bilera Otsailaren 12an dugu. Orduan ikusiko dugu Partzuegoak adierazi duen jarrera ona gauzatzen den.

Badakigu denbora gainean daukagula, eta guztiok gero eta urduriago gaudela. Baina lasaitasuna eskatzen dizuegu. Oposaketak garrantzi handia duela argi dugu, baina ezin dugu Lan Hitzarmena ahaztu, bertan jorratzen bai dira langileen eskubideak.

**Animo eta zuen indar guztiekin aurrera egingo dugu!!**